



## Hiztegitxo

Hobeto irakurtzen laguntzeko



<b>aberri</b> norberaren sorteria	Inperioaren idealak, <b>aberriaren</b> batasuna.	23
<b>adeitasun</b> kortesia, jendetasuna	—A, funtzionario hauek ez dakite <b>adeitasuna</b> zer den! Ez nuen muturreko neurririk hartu nahi, baina...	15
<b>ahalik eta lasterren</b> lehenbailehen	...saihets-bide hau hartu dugu <b>ahalik eta lasterren</b> urruntzeko.	121
<b>aho bete hortz</b> harrituta, txundituta	Azeria <b>aho bete hortz</b> geratu zen.	141
<b>akasgabe</b> perfektua	Yrkoa... Zure ahoskera <b>akasgabea</b> da, ordea. — Bai, Maestre.	10
<b>akiturik</b> nekatuta, indarrrik gabe	<b>Akiturik</b> banengoen ere, gau hartan ezin izan nuen begirik bildu.	198
<b>alena</b> halakoa	Ezpata ipurtzulotik sartu beharko nizuke, babo <b>alena</b> !	171
<b>alproja</b> ganorabako alferra	Gizatxar, arlote eta <b>alproja</b> talde zaratatsua osatzen zuten. Txima luzeak, bizar koipetsuak, arropa maiztu eta adabakiz josiak, sekula xaboirik ikusi gabeak.	83
<b>amaraun</b> armiarma sarea	...sitsak jandako banderak, ezkutu zirtzilatuak, harrizko eta brontzezko estatuak... Hautsez josita eta <b>amaraunez</b> jantzita.	12
<b>amarru</b> azpikeria, trikimailua, engainua	— Beraz, zure ustez, hori guztia Arkanian boterea hartzeko <b>amarrua</b> besterik ez da?	77
<b>anabasa</b> nahaste-borrastea, nahaspila	— Zuen Maestre Handia joan da, baina garbi dago <b>anabasa</b> txiki bat duzuela zuen museo edo dena delako honetan.	14
<b>andana</b> mordoa, piloa	— Hainbat urtez, gizon-emakume <b>andana</b> bidali nuen. Kea bezala suntsitu ziren Artaakar mendietan.	32
<b>apalkeria</b> jarrera lar apala	— Matematiketan ez naiz hain ongi aritu, Maestre. — <b>Apalkeriarik</b> ez, Nob. Apalkeriarik ez.	7
<b>ardaila</b> zalaparta, harrabotsa	Inork ez zidan erantzun. <b>Ardaila</b> gero eta ozenagoa zen.	97
<b>arian-arian</b> ekin eta ekin, pixkanaka	Ez zitzaigun erraza gertatu liburuzainen Dorre Berdean sartzea, baina <b>arian-arian</b> zerbait lortu genuen.	30
<b>arlote</b> zarpaila, trauskila / eskalea	Gizatxar, <b>arlote</b> eta alproja talde zaratatsua osatzen zuten. Txima luzeak, bizar koipetsuak, arropa maiztu eta adabakiz josiak, sekula xaboirik ikusi gabeak.	83
<b>arre</b> beltxazka, iluna, nabarra	Agure bizi eta argala zen, Armada Inperialaren uniforme <b>arrea</b> handitxo geratzen zitzaiona.	26
<b>atalase</b> ataria, atartea	<b>Atalasean</b> gizon garai eta argal bat zegoen, neguko harropaz jantzita.	217
<b>atorra</b> alkandora	Nire arropak lehortu zirenea, <b>atorraren</b> azpian jantzi nuen gerrikoa.	81
<b>auhen</b> atsekabezko oihua, erosta	Dena etsigarria zen: haurren negarrak, helduen liskarrak, gaizoen <b>auhenak</b> ...	140
<b>azti</b> belagilea	— Begizkoa egin didate? —galdetu zion Rikkak aztiari. <b>Aztia</b> urduri mugitu zen.	16
<b>babo</b> ergela, leloa, papaua	Ezpata ipurtzulotik sartu beharko nizuke, <b>babo</b> alena!	171
<b>begia begi truk</b> mendekua	— <b>Begia begi truk</b> . Ez da bakarrik krimen bati erantzutea. Haize fresko baten beharra dugu. Eta gerrak ekarriko du haize hori.	23
<b>begiak bildu</b> lo egin, lokartu	Akiturik banengoen ere, gau hartan ezin izan nuen <b>begirik bildu</b> .	198
<b>begizkoa egin</b> madarikazioa bota	— <b>Begizkoa egin</b> didate? —galdetu zion Rikkak aztiari. <b>Aztia</b> urduri mugitu zen.	16



<b>belagile</b> aztia ( <i>hechizero</i> )	— Iazko <b>belagile</b> horren pozoiak bihotzerrea ematen dit oraindik.	35
<b>bere onean</b> lasai, patxadaz	— Dena delakoa, ez dago <b>bere onean</b> .	133
<b>betertzetik so egin</b> zeharka bezala begiratu	Fraggek <b>betertzetik so egin</b> zion erretratuari, Enperadoreak entzunen ote zien beldurrez bezala.	30
<b>bidazti</b> bidaiaria, ibiltaria	Nor naizen? <b>Bidaztia</b> erraten didate. Nola sartu naizen? Zuen Maestre handiak utzi dit sartzen.	14
<b>bidenabar</b> bide batez	— <b>Bidenabar</b> , dirutza ederra bilduko dute <i>iraultzaile</i> horiek...	140
<b>brast</b> arin eta zakarki	Eskua <b>brast</b> erretiratu zuen, erre balitz bezala.	146
<b>brodatu</b> hariz irudiak egin	Jantzi grisen paparrean <b>brodaturiko</b> hontzaren eta lumaren ikurra kriseiluaren argiak harrapatu zuen.	9
<b>desenkusatu</b> ezina adierazi, barkamena eskat	Gizona mindu nuelakoan, <b>desenkusatzera</b> nindoan. Baina berak hitz egin zuen lehenago.	105
<b>dohain</b> bertutea, kalitatea	Morroi hark <b>dohain</b> hura zuen, gatz eta piperrik gabeko pasadizo bat menturarik interesgarriena bihurtzen zuena.	93
<b>dzanga</b> hurrupada, tragoa	Fraggek baiezkoa egin zuen. Basoa bete eta <b>dzanga</b> hustu zuen.	137
<b>egonarri</b> eroapena, pazientzia	Fraggek ez zuen <b>egonarririk</b> osasunaz hitz egiteko.	131
<b>egotzi</b> leporatu, errua bota	— Errana zidaten txatxututa zeundela, baina oraingoan marka guztiak hautsi dituzu. Enperadoreari deliturik <b>egotzi</b> ?	31
<b>egurastu</b> aireztatu	Abertzaletasun bultzada batek <b>egurastuko</b> du Inperioaren giro ustela.	23
<b>egurats</b> atmosfera, giroa	Ez zen deus ikusten, eta izerdiak eta arnasek <b>eguratsa</b> kutsatzen zuten.	97
<b>eldarnioetan</b> sukar-ametsekin, deliratzen	Ez dakit zenbat egun eman nituen <b>eldarnioetan</b> .	101
<b>eratsu</b> portaera neurritsukoa	— Gorroto nuen –erran zuen, gizon <b>eratsu</b> harengan harrigarria gertatzen zen doinuan–.	54
<b>erlikia</b> iraganeko gauza, zaharkitua	Nobek inguruko <b>erlikiei</b> begiratu zien. Mapa horixkak, ahazturiko geografien oroigarri.	13
<b>erraustu</b> kiskali, suntsitu	Ohiko prozedurari jarraitu genion: morroia atxilotu, galdekatu, urkatu eta etxea <b>erraustu</b> .	28
<b>erretolika</b> <i>sermoia</i> , txapa, kalaka	...Arkania berriro indartsua zela, Artaakar mendiak bezain gogorra, hartza bezain ahaltsua eta abar... <b>Erretolika</b> barregarria, hain arriskutsua ez balitz.	55
<b>errezeloz</b> mesfidati, aieruz, susmo txarrez	— Gutxi fida –Azeriak, hortz artean. Haiek ere <b>errezeloz</b> begiratzen ziguten.	120
<b>espantuka</b> harrokeriatan	Baina haiek inguruan ez zeudenean, otoitz egiten zuten, ibili bitartean marmarrean, edo deiadarka eta <b>espantuka</b> bide ertzean.	129
<b>estimua</b> begikotasuna	Arkaniarrek berehala hartu zioten <b>estimua</b> ilegorriari.	199
<b>estolda</b> isurbidea	Jetrasi esker, gelatxo bat geneukan <b>estoldako</b> bazter lasai batean, ate eta guzti.	35
<b>euforia</b> poz neurrigabea	Ilegorriak laster baretu behar izan zuen bere <b>euforia</b> : Maisuak plan aldaketa egin zuen.	140
<b>ez entzunarena egin</b> entzungor egin	Lotsagabeak <b>ez entzunarena egin</b> zidan.	140



<b>ezin konta ahala</b> zenbaezinak	Bost milatik gora hildako, bi mila zauritu inguru eta <b>ezin konta ahala</b> desagertu.	132
<b>ezjakin</b> jakin gabe	Bahitzaileek zuhaitzen artetik kirikatzen gintuzten, zelatatuak beraiek zirela <b>ezjakin</b> .	19
<b>feldel</b> paketea	Amesgaizto batean bezala, <b>feldela</b> hartu nuen	73
<b>fitsik ere ez</b> tutik ere ez, ezertxo ere ez	— Ez dut <b>fitsik</b> ere ulertu —aitortu nuen.	124
<b>gaina eta bikaina</b> <i>pieza onena (la flor y nata)</i>	...Jon Bermas, Arkameko estoldetako <b>gaina eta bikaina</b> .	126
<b>garondo</b> kokotea, buruaren atzeko aldea	Zerbaitek jo ninduen <b>garondoan</b> . Lurrera erori nintzen, mundua jirabiraka hasi bitartean.	99
<b>gorgarri</b> burrunbatsua	Euriaren zarata <b>gorgarria</b> zen han, eta Nob ohartu zen dorreko teilatuaren azpian zeudela.	12
<b>gorriak ikusi</b> gaizki pasatu	Arkanian geratu zirenek ere <b>gorriak ikusi</b> zituzten: herriak hutsik zeuden...	50
<b>gosari legea egin</b> gosaldu	Iturri batean apur bat txukundu eta, <b>gosari legea egin</b> ondoren...	144
<b>gupidagabe</b> bihozgabea, krudela	Zirak jantzi arren, tanta <b>gupidagabe</b> haiek beti asmatzen zuten bideren bat gure gorputzetaraino.	153
<b>habaila</b> harriak jaurtikitzeko tresna	...bere txakurraren laguntzaz, soldaduak bilatu eta banan-banan hil zituen harrika, bere <b>habailarekin</b> .	10
<b>habe</b> zeharraga	Barregarri samar iritzi nien sabaiko <b>habeak</b> dardaran jartzen zituzten jauzi baldres haiei.	85
<b>handioski</b> harro, burgoi	Denak jira-biraka zebiltzan, etengabeko borroka, <b>handioski</b> sortuz, bortizki suntsituz, isilean iraungiz eta hilez.	264
<b>hanka egin</b> ospa egin, ihes egin	Edo, beharbada, aguretxoa gure beldur zen eta <b>hanka egiteko</b> aprobe txatu du...	14
<b>hatsanka</b> arnasestuka	Biok <b>hatsanka</b> geunden, igotako eskailerak zirela eta.	145
<b>hazpegiak</b> aurpegi ezaugarriak ( <i>rasgos</i> )	Haiekin, tunika grisez jantzitako gizon bat zegoen. Iharra, kaskamotza, aizkorakadaz taxuturiko <b>hazpegiak</b> .	67
<b>hegi</b> magala	Hiriak muino zorrotz baten <b>hegiak</b> hartzen zituen. Teilatu pikoko eraikinak isurtzen ziren harresia inguratzen zuen ibairantz.	139
<b>herrestan ebaki</b> moldegaizki ahoskatu	...seguruenik, zure aitona <b>herrestan ebakiko</b> zituen <i>r</i> -ak, eta <i>y</i> -ak <i>ei</i> ahoskatuko zituen.	10
<b>hurrupaka</b> zurrupaka, edaten	Fragg jeneralak ez zuen erantzun. Leihotik begira zegoen, edalontzitik <b>hurrupaka</b> .	26
<b>ibar</b> harana	Arkanian soldaduek zainduta, mendateaz bestaldeko <b>ibarrera</b> jaisten hasi ginen.	193
<b>ihar</b> errea, argala, loditasunik gabea	Haiekin, tunika grisez jantzitako gizon bat zegoen. <b>Iharra</b> , kaskamotza, aizkorakadaz taxuturiko hazpegiak.	67
<b>ika-mika</b> eztabaida, sesioa	...udaberri hasieran Ekialdeko saltzaile batzuek <b>ika-mika</b> izan zuten Arkaniako mugako zaintzaileekin.	21
<b>iltze goriari heldu</b> azken aukerari eutsi	— Itotzear zeuden —azaldu zuen on Malakiasek—. <b>Iltze goriari helduko</b> zioten.	53
<b>inposatu</b> indarrez ezarri	Handik aurrera, ezer <b>inposatu</b> gabe, saiatu nintzen ezagupen baliagarri batzuk ematen.	49
<b>ipurtzulo</b> uzkia	Ezpata <b>ipurtzulotik</b> sartu beharko nizuke, babo alena!	171



<b>iraungi</b> itzali, amatatu	Denak jira-biraka zebiltzan, etengabeko borroka, handioski sortuz, bortizki suntsituz, isilean <b>iraungiz</b> eta hilez.	264
<b>irriño</b> barretxo	Azeriak, <b>irriñoa</b> ezpainetan.	161
<b>iruzkin</b> komentarioa	Estoldetako mutil guztiek lerdea zeriela so egiten zioten Rikkari, baina kontu handia hartzen zuten Zapiarren aurrean iruzkinik ez egiten hari buruz.	41
<b>isil-gordeka</b> sekretuan, ezkutuan	Baina orduz geroztik piezak mugitzen hasi nintzen <b>isil-gordeka</b> .	30
<b>izpi</b> arrastoa	Maestreaki begiratu zion. Haren begietan, txantxa <b>izpirik</b> ez.	7
<b>izu-laborri</b> izu-izua ( <i>pánico</i> )	Amorrua aurkitzea espero nuen, baina topatu nuena izua izan zen. Izu <b>laborria</b> .	70
<b>jende</b> pertsonea	Hemen gordetzen diren objektuek naturaz gaindiko ahalmen bat dute: <b>jendeen</b> irudimena hegan jartzen dute.	13
<b>jendilaje</b> jendaila, jende txarra	Zuek primeran moldatuko zarete <b>jendilaje</b> horrekin.	38
<b>jitoan</b> nora ezean, alderrai	Malkoen Itsasoan <b>jitoan</b> ibilia naiz, amaigabeko gauean Toriongo zakurren uluak aditzen nituelarik.	223
<b>jopu</b> esklaboa	...gure aitaren <b>jopuak</b> etorri zitzaizkigun: piltzarrez jantzita, eguzkiak zigorturiko aurpegiak...	113
<b>kakatsu</b> koldarra, nazkagarria, zoldatsua	Barkatu, baina aski izan dut Eridanus <b>kakatsu</b> horren solasaldiarekin.	29
<b>kalaka</b> erretolika	—Hala ez bada, zeuk itzuli beharko duzu agure horren <b>kalaka</b> entzutera.	59
<b>kankailu</b> handikotea, handi-baldarra	— <b>Kankailu</b> horrekin ibili nahi duzu, benetan? —galdetu nion.	44
<b>kargu hartu</b> aurpegiratu, kontuak eskatu	—Ergel batek bezala jokatu duzu Zapiarrekin — <b>kargu hartu</b> zidan Rikkak—.	44
<b>karrika</b> kalea	Zorrien auzora abiatu nintzen, <b>karrika</b> estuzko labirinto bat hiri zaharraren erdian.	68
<b>kikildurik</b> mekotuta, koldartuta	Elurrez estalitako gaztelu haren aurrean bat uzkuriturik sentitzen zen, <b>kikildurik</b> , enperadore hil baten estatuaren aurrean bezala.	252
<b>kirikatu</b> espiatu	Bahitzaileek zuhaitzen artetik <b>kirikatzen</b> gintuzten, zelatuak beraiek zirela ezjakin.	19
<b>kitzikatu</b> zirikatu, hauspotu	Gelan bero itogarria bazegoen ere, irakasleak sua <b>kitzikatu</b> zuen larruzko jarleku batean abaildu baino lehen.	46
<b>koilara zopatan izanda</b> zerbait egiteko une-unean	Susmagarriei jarraitzea eta <b>koilara zopatan zutela</b> harrapatzea.	18
<b>kontseilari</b> aholkularia, gobernukidea	—Atzerriko armada batek Inperioaren gobernadore bat, ni <b>kontseilari</b> , jeneral bat eta hainbat soldadu hil ditu.	22
<b>kontu handia hartu</b> arretaz zaindu	Estoldetako mutil guztiek lerdea zeriela so egiten zioten Rikkari, baina <b>kontu handia hartzen</b> zuten Zapiarren aurrean iruzkinik ez egiten hari buruz.	41
<b>kriseilu</b> oliozko lanparatxo	Nob haren atzetik joan zen lasterka, <b>kriseilua</b> goratuz bidea argitzeko.	7
<b>larderiatsu</b> beldurra eragiten duena ( <i>temible</i> )	Gizon erraldoi eta <b>larderiatsua</b> zen, eta <i>sauhaukar</i> soldaduen uniforme beltzak are beldurgarriagoa bihurtzen zuen.	20
<b>lausengu</b> gehiegizko alabantza, balakua	Urte dut adiskideak izatera heldu ginela, baina haren ahotik inoiz gutxitan entzun nuen <b>lausengurik</b> .	87
<b>lehen-min</b> nostalgia	Sekula ez nuen usteko kiratsak <b>lehen-mina</b> emanen zidala.	142



<b>lerdea zeriela</b> lelotuta	Estoldetako mutil guztiek <b>lerdea zeriela</b> so egiten zioten Rikkari, baina kontu handia hartzen zuten Zapiarren aurrean iruzkinik ez egiten hari buruz.	41
<b>luze gabe</b> handik lasterrera	<b>Luze gabe</b> , baina, dezepzioa hartu nuen: haurrik ez zen agertu nire eskolan.	48
<b>marmarrean</b> ahapeka, txutxu-mutxuka	Baina haiek inguruan ez zeudenean, otoitz egiten zuten, ibili bitartean <b>marmarrean</b> , edo deiadarka eta espantuka bide ertzean.	129
<b>mela-mela</b> blai, erabat bustita	Erabaki nuen gure estoldara zuzenean joatea, on Malakiasen etxetik pasatu gabe. <b>Mela-mela eginda</b> nengoen, eta nekaturik.	67
<b>menturazale</b> abenturazalea	...ordura arteko arriskuek ez ninduten ausartago edo <b>menturazaleago</b> bihurtu, lehen baino are zuhurrago eta txepelagoa baizik.	178
<b>mesfidantza</b> errezeloa, sinesgaiztasuna	Irribarre egin zigun, baina <b>mesfidantzako</b> txinparta bat ikusi nion begietan.	45
<b>minberatu</b> mindua, zauritua	—Milesker errateagatik —esku <b>minberatua</b> igurzten nuen—. Baina toki honetatik atera arte itxaron nezakeen hori jakiteko...	150
<b>mirakulu</b> miraria	Harat-honat ibiltzen da, <b>mirakuluak</b> egiten eta hitzaldi ergelak botatzen.	77
<b>mitiko</b> leiendakoa, jainkozkoa	Eraikin <b>mitiko</b> hura Arkaniako erregeen egoitza zen, dinastia desagertu zen arte.	52
<b>mizkin</b> ahozuria, errefinatua jateko	—Garai batean ez zinen horren <b>mizkina</b> —erran zuen Fraggek, likorea eta edalontzia tiradera batean sartuz.	27
<b>mortu</b> bakartua, hutsa	Karrika <b>mortuetan</b> zehar ibili zen.	143
<b>motzondo</b> enbor ebakiaren hondarra, ipurdi	Zuhaitz guztiak soilduta zeuden suak hornitzeko. Haien <b>motzondoek</b> tristeago bihurtzen zuten paisaia.	140
<b>muino</b> tontorra	...hiriak <b>muino</b> zorrotz baten hegiak hartzen zituen.	139
<b>murru</b> harresia, horma gotorra	Leiho baten ondotik igarotzean, Nobek euria entzun zuen dorreko <b>murruei</b> erasoka.	8
<b>naturaz gairdiko</b> berezia, magikoa	Hemen gordetzen diren objektuek <b>naturaz gairdiko</b> ahalmen bat dute: jendeen irudimena hegan jartzen dute.	13
<b>nolakotasun</b> ezaugarria	—Arkaniarren kondaira eta irudimen kolektiboan ageri diren <b>nolakotasunak</b> hartu dituelako.	127
<b>ñaño</b> kakanarrua, ipotxa	—Kendu piztia hau gainetik, <b>ñaño</b> horrek!	184
<b>odolustu</b> odol gabetu, odol asko galdu	...besoa odoletan, hezurra agerian. <b>Odolusten</b> ari zen.	58
<b>oka egin</b> botaka egin	<b>Oka egiteko</b> zorian nengoen.	44
<b>oldartu</b> indarrez inguratu, eraso antzean	Arkaniarrek pentsatu zuten guardiak artzainei erasotzen ari zirela, eta <b>oldartu</b> egin ziren.	22
<b>papar</b> bulargaina, kolkoa	<b>Paparrean</b> , Zerbitzu Sekretuen ikurra zeraman: Inperioaren hontza, sugedorri bat mokoan.	26
<b>partekatu</b> erdibana egin	Baina badirudi lurak irentsi dituela sasikume horiek. Beraz, saria <b>partekatu</b> eginen dugu.	38
<b>patxada galdu</b> urduritu, ernegatu	Nik ez nuen hitz atera. Petrasek <b>patxada galdu</b> zuen.	39
<b>perlesiatu</b> ezinduta, elbarri bezala	Garrasi egin nahi nuen eztarria urratzeraino. Baina ezin nuen. <b>Perlesiatu</b> nengoen.	258
<b>piko</b> malda zorrotzekoa	Hiriak muino zorrotz baten hegiak hartzen zituen. Teilatu <b>pikoko</b> eraikinak isurtzen ziren harresia inguratzen zuen ibairantz.	139





<b>piltzar</b> ehun zati urratua, zati apurtua	...gure aitaren jopuak etorri zitzaizkigun: <b>piltzarrez</b> jantzita, eguzkiak zigorturiko aurpegiak...	113
<b>plantak egin</b> itxurak, gezurretako keinuak	Iruditxo bat hartu eta garbitzeko <b>plantak egin</b> zituen.	36
<b>premiatu</b> arin ibiltzeko eskatu	— Sartu — <b>premiatu</b> nuen—. Aztia dela onartu du.	18
<b>primeran moldatu</b> ederto konpondu	Zuek <b>primeran moldatuko</b> zarete jendilaje horrekin.	38
<b>purrustada</b> protesta, mespretxuzko keinua	—Zer moduz daude Arkameko anai-arrebarik bihurrienak? <b>Purrustada</b> batekin erantzun nion.	36
<b>putre</b> saia, hegazti haratustel jalea	—Sar dadila <b>putre</b> zahar hori.	26
<b>sarraski</b> hilkuntza, masakrea	Shadomirako <b>sarraskia</b> denen ahotan zebilen.	129
<b>sasikume</b> sasikoa, putakumea	Baina badirudi lurrak irentsi dituela <b>sasikume</b> horiek. Beraz. saria partekatu eginen dugu.	38
<b>segizio</b> jarraigoa, jarraitzaile multzoa	...Boyalasen <b>segizioko</b> guardia inperialek Arkaniako artzain batzuk galdekatu zituzten.	22
<b>sitsak janda</b> pipiek zulatuta, hondatuta	Kriseiluak objektu bilduma sinestezin bat argitu zuen: <b>sitsak jandako</b> banderak, ezkutu zirtzilatuak, harrizko eta brontzezko estatuak...	12
<b>so egin</b> begiratu	Banan-banan <b>so egin</b> zien kontseilariei. Gutxi batzuek eutsi zioten haren begiradari.	22
<b>soilduta</b> ebakita, moztuta	Zuhaitz guztiak <b>soilduta</b> zeuden suak hornitzeko. Haien motzondoek tristeago bihurtzen zuten paisaia.	139
<b>sos</b> txanpona, dirua	— <b>Sos</b> bat ere ez —barre egin zuen on Malakiasek—. Baina arkaniarrek ederki hartu ninduten.	47
<b>tapaki</b> estalkia	Zuhaitzen artean toki bat bilatu eta <b>tapakian</b> bildu nintzen.	85
<b>taxutu</b> moldekatua	Haiekin, tunika grisez jantzitako gizon bat zegoen. Iharra, kaskamotza, aizkorakadaz <b>taxuturiko</b> hazpegiak.	67
<b>tokitan egon</b> urruti, batek daki non	Baina Arkania <b>tokitan dago!</b>	47
<b>totelka</b> zezelka, motel-trabatuta ahoskat	...Rikka, Arkamekoa, hemen da? —erran nuen, <b>totelka</b> .	97
<b>trumilka</b> piloan, samaldan, tropelean	Tximaluze haiek <b>trumilka</b> etorri ziren eztainu meategietan lan egitera. Jende bitxia eta itxia.	37
<b>txatxututa</b> ergelduta, lelo bihurtuta	—Errana zidaten <b>txatxututa</b> zeundela, baina oraingoan marka guztiak hautsi dituzu. Enperadoreari deliturik egotzi?	31
<b>txepel</b> koldarra, kakatia	—Maevas bezain <b>txepela</b> bihurtu zara?	76
<b>tximaluze</b> adats edo ilaje ugarikoa	<b>Tximaluze</b> haiek trumilka etorri ziren eztainu meategietan lan egitera. Jende bitxia eta itxia.	37
<b>ulu</b> alaraua, uhuria	Malkoen Itsasoan jitoan ibilia naiz, amaigabeko gauean Toriongo zakurren <b>uluak</b> aditzen nituelarik.	223
<b>urgente</b> premiatzkoa	Orrialde mordo bat nahi dut, letra onarekin. Eta <b>urgentea</b> da.	38
<b>uzkurtu</b> batuta, bilduta bezala	Elurrez estalitako gaztelu haren aurrean bat <b>uzkurturik</b> sentitzen zen, kikildurik, enperadore hil baten estatuaren aurrean bezala.	252
<b>zakuto</b> zorroa, aneka	Zorte apur batekin lapurrak <b>zakutoa</b> besterik ez zidan ostuko.	85



<b>zamari</b> zama eramateko abereak	Toki libre bat aurkitu bezain laster <b>zamariak</b> askatu eta dendak ezarri genituen.	140
<b>zangoztraba egin</b> zangartea jarri, tupust eginarazi	Atari ilun baten paretik pasatzean, norbaitek <b>zangoztraba egin</b> zidan.	69
<b>zarpail</b> arlotea, itxura zatarrekoa	— Harrituko zinateke <b>zarpail</b> horiek lortzen dituzten informazioak ikusita.	33
<b>zarrasta</b> bihotzeko ukitua, inpresioa	<b>Zarrasta</b> batek korritu ninduen burutik oinetaraino. Hura ez zen saguzar bat. Handiegia zen.	258
<b>zentzatu</b> arrastoan sartu, serio jokatu	— Eta azkenean jende haiek <b>zentzatzea</b> lortu zenuen?	48
<b>zetaka</b> orbana, zikingunea, mantxa	Fragg jeneralak dokumentuari begiratu zion, baina <b>zetaka</b> zuri bat besterik ez zuen ikusi.	25
<b>zezeldu</b> zailtasun handiz ahoskatu	— Gaiztakeriak? — <b>zezeldu</b> zuen aztiak, Rikkaren bularretik eskua kendu gabe.	17
<b>ziplo</b> bat-batean, tupustean	<b>Ziplo</b> gelditu eta balezta goratu zuen. Azeria ez zen ezertaz ohartu, arreta dorrekoari ematen baitzion.	95
<b>zira</b> euritarako kapusaia	<b>Zirak</b> jantzi arren, tanta gupidagabe haiek beti asmatzen zuten bideren bat gure gorputzetaraino.	153
<b>zirri egin</b> ferekatu	— Zerbaitek erraten dit oraingoan ere <b>zirri eginen</b> didatela.	39
<b>zirtzilatu</b> zati-zati egina, triskatua	Kriseiluak objektu bilduma sinestezin bat argitu zuen: sitsak jandako banderak, ezkutu <b>zirtzilatuak</b> , harrizko eta brontzezko estatuak...	12
<b>zuritu</b> justifikatu	Irudikeria horien bidez matxinadaren berri ez izana <b>zuritu</b> nahian bazabiltza, ez nekerik hartu	135